

bidegileak



Pedro de Yrizar (1910-2004)

Egilea:

RICARDO BADIOLA URIARTE

Pedro: ume, gazte, ikasle

ogeigarren mendearen hasieran etorri zitzaigun gure Pedro mundu honetara, Azkoitiko herrian, 1910eko abuztuaren hamaikan. Beronen jaiotza amaren etxean gertatu zen Palacios-tarren jauregian, Zubieta-Torrea zeritzanean. Pedrok bost neba-arreba izan zituen eta bera izan zen gazteena.

Pedroren ama, Elena Barnoya Berroeta, Valladolid-ekoa, gaztetan Gasteizen bizia. Euskara helduaroan ikasi zuen. Aita, Ignazio de Yrizar Palacios, Bergarako euskaraz mintzatzen zena.



Pedro de Yrizar Barnoya (1910-2004)

Familia, Pedroren gazte denboratan, Madrilera-
ratu zen, nahiz eta Azkoitira, opor eta fami-
liaren beste zenbait arazo jazotzean, alegia,
anitzetan: «Periko Palacios etorri zaigu» zioten
herriko umeek.

Gazte-gaztetatik Azkoitiko berbeta aztertzen
hasia zen auzune askotatik ibilirik adizkerak,
lexikoa eta esaundak biltzen eta ikertzen
beste kide batzuekin batera. Hemen oinarri-
turik Azkoitiko baserri-etxeen karta osotu
zuen Udalerako.



1911ko urria. Gure Pedro beraren «iñude» zen Maria Josefa Zubizarreta andrearekin

Estatuko hiriburura joan aurretik, Azkoitian zegoenean, herriko Karitateko moja-ikastetxean, hiru urterekin hasita, ikasi zuen «sor Dorotea, Sotera eta sor Jesus» irakasleak izanik.

Pedroren izaeraren zutabe-oinarriak, hura ezagutu eta hurbiletik harekin izandakoek adierazirik, honako hauek ditugu: bizi-gogoia, lanerako prestutasuna, ideiak eta iritziak ba-

bestekougarra. Honetarako Anton Chejov-en *La dama del perrito*, errusieraz irakurritako liburuak izan zuen oinarri. Eta Pedrok, 85 urte betetzean, *Cómo funciona mi memoria* idatzia utzi zigun Chejov-en lanean oinarriturik.

Gure Pedro bi urterekin Madrilen dugu. Bertan, lehenik San Diego ikastetxean eta gero Saint-Maur, «Las Damas negras» zeritzan ikastetxean ikasi zuen. Azken honetan haren arrebak ere bertan zebiltzan ikasten. Ondoren San Inazio ikastetxean. Jarraian Madrileko Goi Mailako Industri Ingeniaritza Eskolan amaitu zituen ikasketak «bikain kalifikazioarekin». Era berean, Geografia, Ingeniaritza eta Ekonomia zientziak ere ikasi zituen, Madrileko Complutense Unibertsitatean, eta karrera amaitzean, «aparteko lehen saria» eskuratu zuen.

Jadanik Madrilen bizi zela, besteak beste, ondoko zaletasunak lantzen hasia dugu: *Astronomia*, *Xake-joko* edo *Xakea* eta *Musika*. Honela Ekuatore Gineara joan zenean, Hego Hemisferiotik begiraturik ikerketak burutu zituen, Orion konstelazioa eta Sirio izarra. Pedrok berak teleskopio txiki bat egin zuen Ilargiko mendiak eta Jupiterreko sateliteak ikusteko asmoarekin.

Beraz ez zen bakarrik zientzia munduko zaletasuna zeukan gizasemea, jokoa ere maite zuen jarraian ikus dezakegunez. Atletismoa eta eskupilota maite zituen. Honela Atano III.aren adiskide mina izatera heldu zen.

Zaletasunekin jarraituz gero, zahartzaroan ere, piano berezia baitzeukan bere etxean, ia-ia hil arte, egunero jotzen jarraitu zuen. Beraz, benetako zaletasuna zuen diziiplina zen *Musika*. Julia Parodi izan zuen musika-irakaslea eta hori Alfred Cortot, frantses musikari ospetsuaren ikaslea. Eta Cortot-ek, 1935. urtean, Madrilen Chopinen 24 *preludioak*. *Si menor Sonata, opus 58 eta 10 estudioak* jo zuen.

Chopinenzat, musika, gizaki barneko senti-mendu eta emozioen adierazpide zen. Berau dugu, bestalde, musika modernoaren oinarri-oinarria.

Pedrok zeukan musikarekiko zaletasuna age-rian geratzen da hurrengo pasartean:

[...] jarraiko musikari ospetsuen autografoak gordetzen ditut: Prokofiev, Wanda Landowska, Jacques Thibaud, Nathan Milstein, Stiatoslav Richter eta beste... bestalde Pablo Sarasate eta Julian Gaiarreren sinadurak ere gordetzen ditut [...]



1910. urtea: Pedro de Yrizar eta beronen ama, Elena Barnoya Berroeta, Zubieta-Torrea etxean, Azkoitian



Pedro de Yrizar eta Inazio de Yrizar Palacios



1924. urtea: Yrizar Barnoya familia Madrilen, Isabel II izeneko plazan

Pedrori bere zahartzaroan egindako elkar-
rizketa batean bizitzako bizi-pozak agertzen
zaizkio, alegia, nahiz eta gorputzez ezindua
izan, berbetan ere zailtasunak zituen..., baina
burua argi:

[...] Gijon-en nintzenean Tabako lantegiko
ingeniari gisara, hilean 15 pezeta ordainduz,
pianoa alokatu nuen eta hura jotzen nuen
bizi nintzen hotelean: Beethoven, Chopin
eta Schumann.

Pedrok pentsalari eta zientzialari anitz mires-
ten zituen: filosofo-zientzialariak (Kant, Eins-

tein...) eta baita santuak (Asisko San Frantzis-
ko eta San Juan Maria Vianney —Ars-ko aba-
de santua—) ere.

Bestalde, garaian garaiko gai eta teknikez ja-
betzeko asmoarekin, hemen dakusagu gure
Pedroren trebetasuna egungo ordenadoreak
direla eta, zahartzaroan hark adierazia:

[...] zahartzaroan bada ere tramankulu hau
—ordenadorea— lagun dut eta errespetuz
eta miresmenez erabiltzen dut neure ikerke-
tatxoak aurrera eramateko asmoarekin [...]
Hau da hau aurrerapena!



1927ko abuztua: Yrizar Barnoya familia, Zubieta-Torreko lorategian, Azkoitian. Atzean, zutik: Joaquín, Luis eta Jose María de Yrizar Barnoya. Eserita: Pilar Martínez de Morentin, Joaquín-en emaztea, Elena Barnoya Berroeta, Carmen Yrizar Barnoya, Ignazio Yrizar Palacios, Pedro eta Amalia Yrizar Barnoya

Azkoitiarekiko herrimina

Euskara dela eta, zer iritzi zeukan Azkoitiko seme ospetsuak? Hona hemen, gazte-gaztetatik hark izandako iritzia herriko berbeta dela eta:

[...] segituan antz ematen digute azkoitiarroi. Badakizue zertan garen desberdin Azpeitikoan aldean? Haiek *aite* esaten dute, guk *aitte*; haiek ekarri *ditu*, guk ekarri *dittu*. Badira beste desberdintasun batzuk ere.

Pedrok bere burua «euskaldun zaharra, María Josefa Zubizarreta, *iñudea*-rengandik ikasita, gehienbat, eta erdaldun berri gisa» zeukan, askotan. Eta Azkoitiarekiko herrimina dela eta, egun askotan telefonoz mintzatzen zen azkoitiar kide eta ezagunekin eta udaldietan bertara herriratzen zitzaigun bertakoe-kin ordu luzeak igaroz eta herri-berbetaz gozatu eta hura landurik.

Pedroren familian sei neba-arreba izan ziren eta berau izan zen gazteena eta hil zitzaigun

azkena ere, Madrilén, 2004. urtean. Pedroren emaztea —María Antonia Velasco— Asturiasko Gijón-ekoa zen. 1944. urteko urriaren 7an ezkondu ziren, eta 38 urte iraun zuen ezkon-bizimoduak «zoriontasun osoan», emaztea hil artio. Berauek hiru seme-alaba izan zituzten: Pedro Ramón, María Elena eta Iñigo. Eta Iñigok eta Amaliak, andreak —Pedroren errainak— hiru iloba utzi dizkiote: Amalia, Iñazio eta Antonio.



Pedro gaztetan

Gazte-gazterik Madrilén dugu gure On Pedro: zortzi urterekin Saint-Maur (Damas negras) ikastetxean ikasten dihardu, bertan lau urte, garai hartako lehen ikasketak burutuz. Pedro ezagutu zutenekin mintzatuz gero, mutiko zuhurra eta argia zela, adierazi digute. Ikasgelan fina eta diziplinatua. Klase-etako ikasketek ez zioten buruko min handirik sortzen, argia baitzen. Nahiz eta Madrilén gaztelania ikasi eta erabili, ez zuen ahaztu Lazarraga, Axular, Leizarraga, Ubillos, Añibarro, Txomin Agirre edota Frai Bartolomereren berbetarik. Pedrok, bere burua, erdaldun berri-tzat zeukan. Eta euskara Azkoitia eta inguru-ko berezitasunekin gorde, landu eta ikertu zuen bizitza osoan, batez ere, eguneroko lanetik jubilatatu ondoren.



1930. urtearen inguruan: Pedro eta Joaquín de Yrizar Barnoya jaunak

Ikasle langilea

Pedrok 13, 14 eta 15 urte zituela, San Inazio ikastetxe pribatuan ikasi zuen garaiko batxilergoa. Nahiz eta San Inazio izena izan ikastetxeak, ez zen Jesuitena, hark sarritan azpimarratzen zuen moduan. Ikastetxe honetan ikasle bikaina zen, bai diziplina gehienetan —Matematika, Diseinua, Geografia...— baita portaera ereduzkoa... nota bikainak ateratzen omen zituen, Pedro hil eta gero jakin dugunez. Beraz, ordurako nabarmentzen hasia zen gure gizonaren zuhurtzia eta jakin-mina... Ernamuinean argia eta fina izan zenez, gero, Unibertsitate mailako ikasketetan, tantai artez eta luze moduko zuhaitz preziatua izanen zaigu bizitzan zehar.

Espainiako Gerra Zibilaren ostean, 1941. urtean, Pedrok Administrazio-oposaketak gaindituz gero, Ogasun Ministerioan lanean



Pedro de Yrizar 1931ko azaroaren 16an

hasi zitzaigun eta baita Institutu Geografiko Nazionalean ere:

Hamabost urtez lan egin nuen Estatuko mapan, brigada topografiko gisara (1:50.000) Lugo eta Salamancan urte bitan [...] eta ondoren magnetologo moduan. Eta 1952.eko otsailaren 25ean, Guinea Ecuatorialean, hango mapa magnetikoa burutzen, partaide izan nintzen.

Gure ikasle-langilea geldirik izateko jaio ez zenez gero, hona hemen, hark egindako adierazpena:

Zuzenbide karrera ikasten hasi nintzen Erromatar Zuzenbidean «ongi» bat atereaz. Orduan sortu zuten Zientzia Politiko eta Ekonomikoetako Fakultatea [...], Zuzenbide



Pedro de Yrizar eta María Antonia Velasco senar-emazteak Bartzelonan 1944ko urrian

karrera bertan behera laga eta Ekonomikoe-
tako adarrekoa ikasi nuen [...] hemengo li-
zentziaturan Sari Berezia eskaini baitzidaten...
doktoradutza asignaturak gainditu nituen,
baina tesia ez nuen aurkeztu [...] Eta ordu-
ko Industri Ingeniaritza Eskolako Castañe-
da irakasle ospetsuaren laguntzailea izatera
heldu nintzen [...].

Hemen aipaturiko Castañeda, katedradun
irakaslea, garai hartako ekonomista bikain,
entzutetsuena... omen zen eta *Revista de
Ciencia Aplicada* eta *Racionalización* aldizka-
rien zuzendaria. Pedro aldizkari biotako idaz-
lari edo erredaktore izatera heldu zitzaigun.

Pedrori egindako elkarrizketan, hainbat datu
eta bizitza-xehetasunetatik, honako pasarte-
a dakargu:

Ogasun Ministeritzan Moneta eta Tinbreko
Lantegian Balore Dokumentuen Sailburua
izan nintzen, Bankuko billeteak egiten ze-
nena. Hemen zortzi urtez ibili nintzen. On-
doren Madrileko Ogasun Ordezkaritzara
bidali ninduten, Finantzar eta Zergen Ins-
pektore gisara, zeinetan jarraitu nuen ene
jubilazioa iritsi arte.

Ingeniaritza eremuan hainbat eta hainbat
ikerketa eta proiektu burutu zituen, hots:

Salamanca eta Asturiasen neurketa geode-
sikoak... Guinea Ecuatorialean mapa magneti-
koa [...] Bata herrian neurketa magnetikoak
[...] Kongon, neurketak egiten ari zela, Muni
ibai-ahoa, eguzki-eklipsea gertatu zitzaigun,
1952.eko otsailaren 25ean [...].



Pedro de Yrizar (1955eko azaroaren 24an)

Bidaiekin jarraituz gero, Pedrok 75 urte baino
gehiago zituenean, eguneroko lan-zamatik jubi-
latuz gero, Errusiara egin zuen beste bidaia bat:

[...] nire ametsa Mosku eta San Petersbur-
go ezagutzea zen... Transiberiano trenean
ibili eta Yasnaia, Poliana —Leon Tolstairen
eremu partikularra ikuskatu, berau liburue-
tatik ondo ezagutzen bainuen. Berton ziur-
tatuz ikasia nuela Errusiera, irakurri bakarrik
ez, hitz egiteko gai nintzela ere, —Tolstoi,
Dostoievski, Chejov eta beste autore ba-
tzuekin [...]— frogatu nuen moduan.

Baina gure Pedro de Yrizar ez zen arratsal-
detan ezer egin gabe gelditzekoa:

[...] arratsaldez Juan de la Cierva patrona-
toan —Ikerketa Zientifiko eta Goi Mailako
Kontseilua— jarraitu izan nuen lanean, iker-
keta eremuan eta kide bezela.

Akademia tituluak

*B*estalde, Unibertsitateko ikasketak direla eta, hona hemen gure Pedrok buruturiko karrera-ikasketak eta, ondorioz, jasotako zenbait akademia-titulu:

I. Ingeniaritza Industrialean Doktoretza, hau da, Madrileko Industri Ingeniaritza Goi Mailako Eskolan, Doktoretza burutu eta eskuratu zuen.

II. Madrileko Unibertsitate Zentralean Zientzia Ekonomikoetan Lizenziaduna, baina esparru honetan aparteko saria jaso zuen, hark burututako ikasketa-notak bikain-bikainak izan baitziren. Ondoren, Zientzia Ekonomikoetako irakasgaiak, Doktoretza

mailan, ondu zituen eta, soil-soilik tesia aurkezteko laga zuen.

III. Musika-eremuan zaletasun handikoa genuen Pedro. Hau dela eta, haren gazte garaian, Madrilera jotzen zuten hainbat musikarik beren partituretan eskaintza berezia emana zuten eta Pedrok, bere bizilekuan, ondo-ondo gorderik zeuzkala adierazi digute haren seme-alabek. Asturiasen, tabako esparruan lanean zebilela, arratsalde askotan,



Yrizar-Velasco familia Loiolako basilikan, 1965 inguruan



1947ko maiatzaren 12an, Yrizar Barnoya anaia-arrebak. Atzeko aldean: Jose Mari, Pedro, Joaquín eta Luis. Aurreko aldean: Carmen eta Amalia

hura bizi zen hotelean pianoa jotzen aritzen omen zen, ordu anitzetan; honela ezagutu baitzuen gero emaztea izanen zuena ere. Eta gero, Madrilen bizi zenean, jarraitu zuen ohitura horrekin, batez ere, jubilatutako ondoren. Honela, ba, bizitzaren azken urteetan piano eder batez gozatu zuen, hots «isats pianoaz» deritzan musika-tresna bikain eta zoragarria zeukan Madrileko etxebizitzan.

Musikarien artean Euskal Herrikoak ezagutu eta euren piezak jotzen zituen eta ez hemen goak bakarrik, atzerrikoak ere bai, beraz euren lanak miresten eta aldi berean jotzen zi-

tuen, alegia: Julia Parody, Alfred Cortot, Arturo Rubinstein, Vladimir Horowitz, Sergei Prokofiev, Wanda Landowska... Eta Euskal Herrikoak: Francisco Escudero, Tomas Garbizu, Pedro Meroño, Luis Galve, Pablo Solozabal, Javier Bello Portu, Jose Izurrategi, Nemesio Otaño-Eguin, Etxaniz, Benigno Arrieta, besteak beste.

Pedrok ikasketak, musika, idazketa eta abar egin arren, aisialdirako ere bazeukan denbora, alegia: xake-jokoa zuen maite. Eta honela, Bergarako Eladio Urdangarinekin, Pedoren osaba bat, partida luzeak egiten zituen hamar urte zituela. Eta 1931. urtean, Industria

Ingeniaritzako Eskolak antolaturik, xake-jokoan zilarrezko kopa irabazi zuen. Eta 1935. urtean xake-jokoan «tablak» egin omen zituen Alekhine txapeldun errusiarrarekin. Xake-jokook —sei partida guztira— Madrilen jokatu zituzten. Hark zioenez:

Xake-jokorako zaletasun aparta daukat eta, 1931 urtean, Madrileko Ingenieritza Eskolako Zuzendariarengandik zilarrezko kopa eskuratu nuen.

Hauetatik, tablero bakoitzean lau jokalaria. Eta Pedrok lau irabazi eta bitan «tablak» egi-tea lortu zuen.



1948ko abendua. Pedro de Yrizar eta beronen seme-alabak: zutik, Pedro (semea); besoetan, Iñigo, bataio egunean, eta María Elena

Hizkuntzak

Hizkuntza jakiteak berez aberastasuna izanik, eremu honetan ere, gure Pedro saiaturik eta ekina izan zen bizitza osoan, alegia, hizkuntzak ikasi, landu... ez bakarrik hizketa eran, baizik eta idazketa eta erabileran ere bai.

Honako mintzaira hauek menperatzen zituen:

- a) *Euskara*: ia-ia euskalki guztiak L. L. Bonaparte Printzearen antzera... eta, gainera, bizitzaren azken boladan, euskara batua ere menderatzen zuen;
- b) *Gaztelania*: On Pedrok zioenez «Castellano barriye» naiz, zeren berandu ikasi baitzuen;
- c) *Frantsesa*: gazte-gaztetatik mintzaten, irakuntzen eta idazten ikasi zuen Saint-Maur Ikastetxean.
- d) *Ingelesa*: mintzatze eran eta, batez ere, irakurtze eran;
- e) *Alemana*: bai Gramatika eremuan bai irakurtze mailan;
- f) *Errusiera*: bai idatzian eta bai Gramatika eremuan, Errusiara joan zenean frogatu zuenez bertako idazleekin gutunak trukatu eta elkarriketak izanik bai hizkuntza arloan, eta bai zientzia eremuan eta teknologian ere.

Pedro de Yrizar, Mari Antonia Velasco emaztea eta bion alaba,
María Elena Yrizar Velasco, neskatila

Lan edo bizimodua

Pedrok bere bizitzan zehar buruturiko ikasketez aparte —ikasketa ere lana baita— jarraiko ogibide-bizibideok izan zituen, alegia:

- I. Espainian Estatuko Hazienda edo Ogasun Ministerioan, Madrilén, Ingeniari Industrial eremuan, egin zituen hainbat eta hainbat lanordurik —familia aurrera ateratzeko— eta betekizun mordoa burutu, lan hutsetik aparte.
- II. Estatuko Zerga eta Finantza esparruetako inspektore-buru izan zen zenbait urtetan.
- III. Estatuko *Tabacalera* enpresako oposaketan, Pedro de Yrizarrek lanpostua beregatu zuen eta ordezkari gisara lan egin ere.
- IV. Espainiako Estatuburuan, Banku Billete edo Tinbreen eremuan, tokiko burua izan zen, alegia, Tinbre eta Moneta Nazionalen beharlekuko zuzendaria.
- V. Ingeniari Industrialen Goi Maila Eskolako Ekonomia irakaslea, hau da, Ingeniari Eskolan, Madrilgo Unibertsitatean. Irakasle gisa, oso preziatua izan omen zen, jakin dugunez.





1989ko maiatzaren 28tik ekainaren 2 arte, Poznan (Polonia) Nazioarteko Sinposiuma: Jan Braun, Varsoviakoa, eta Pedro de Yrizar

Zenbait erakundetako kidea

Bizitza luzean zehar, hainbat tokitan izan zen partaide eta kolaboratzaile Yrizar; baina, hain zuzen, nabarmenenak aipatuko ditugu:

1. *Ciencia Aplicada* aldizkarian erredaktore. Juan de la Cierva Patronatukoa, Ikerketa Zientifikoetan Goi Mailako Kontseilukidea, erredaktore izatera heldu zitzaigun.

2. *Racionalización* aldizkarian, Juan de la Cierva Patronatukoan, idazlaria izatea lortu zuen, hainbat oztopo gaindituta.

Azkoitiko gizon ospetsua izan zen Pedro de Yrizar hainbat eta hainbat erakunde, elkarte eta kultura eremutan kide izan genuen. Baina, guk hemen ez ditugu den-denak aipatuko, soil-soilik Euskal Herriarekin zerikusia eta

harremanak izan zituzten eta dituztenak aipatuko ditugu:

1. Euskaltzaindiaren kidea: 1947ko martxoaren 28an izendatu zuten euskaltzain urgazle eta 1987ko ekainaren 19an, Zarautzen, ohorezko euskaltzain, Jon Bilbao bibliografoarekin batera. Hainbat aldiz izan zen Euskaltzaindiaren batzarretan. Erakundearekin harreman estuak izan zituen. Erakundearekin hamalau liburuki kaleratu zituen. Baita zenbait artikululu ere. Beste liburuki bat du familiak inprimategian, noiz kaleratuko zain.

2. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kidea. Elkarte honetan kide ezagun eta adiskide ugari zituen eta bertako aldizkarian hainbat artikululu kaleratu zituen.

3. Eusko Ikaskuntzako kidea, partaidetza emankorra izan zuen bai idazle moduan eta baita gizatasun —harremanak— mailan ere.



1981eko ekainaren 16an, Donostia, Pedoren liburu baten aurkezpenean. Ezkerretik eskuinera: Koro Landa, GAK, Pedro de Yrizar eta Miguel Angel Martin GAK

Euskalariekin harremanak

Pedrok bizitzan zehar buruturiko ikasketez aparte badauka ikertzaile eta argitaraturiko lan-eremuan zer aztertu eta zer miretsi. Hark, ikerketa-eremuan hasi zeneko, haxe aitortzen digu:

[...] euskara eremuan, nire irakaslea, Julio Urkixo (RIEV aldizkariaren sortzailea), senitartekoa izan zen, zeinen adiskide eta bizitzaren azken urteetan bidaidea Jokin nire anaia eta aitabitxia izan zen.

R.M. Azkuerekin ere harremanak izan zituen Pedrok, 1944. urtetik hasita. Eta are gehiago, jarraikookin ere izan zituen harremanak: Pedro Berrondo, Hugo Schuchardt, C.C. Uhlenbeck, A. Tovar, Nils M. Holmer, Henri Gavel, René Lafon, Jacques Allières, Ernest Lewy, Gerhard Deeters, Karl Bouda, Gunter Brettschneider,

Hans Schwerteck, Paul Kretschmer, Jeroen Wils, Hans Vogt, W. Thalbitzer, L.L. Hammerich, Timo Riiho, Jon Bilbao, Kilburn MacMurrough, Harry Hoiyer, Carl F. Voegelin, Jan Braun, Yuri V. Zytsar, Chanturia, eta abarrekin.

Gure etxeko ikerlarien artean, besteak beste eta lehengoez gain, hona Pedrorekin harremanak izan zituztenak: E. Erkiaga, G. Aresti, J. Kerejeta, A. Zubikarai, L. Villasante, N. Altzola, M. Olazar, P. Pujana, J. San Martin, J.M. Satrustegi, P. Ondarra, A. Labaien, P. Altuna, J.I. Uria, P. Ir aizoz, D. Intza, M. Lekuona, K. Mitxelena, A. Irigarai, X. Diartze Iratzeder, M. Izeta, J. Haritschelhar, M. Itzaina, P. Lafitte, R. Kanblong, J. Hiriart-Urruty, I. Gaminde, G. Eppherre, M. Hegiaphal, P. Salaburu, H. Knörr, L. Akesolo, G. Bähr, J.M. Barandiaran, R. Bozas Urrutia, A. Campion, B. Kapanaga, J. Caro Baroja, I.M. Etxaide, N. Etxaniz, J. Estornes Lasa, B. Gandiaga, B. Lasuen, Jose Luis Lizundia, Koldo Artola...



1992ko urriaren 15a: Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Morfología del verbo auxiliar...* aurkeztzen. Ezkerretik eskuinera: Leopoldo Zugaza, BBK; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; eta Pedro de Yrizar

Ikerketak eta liburuak

Pedro de Yrizarrek aldizkari, liburu, prentsa eta abarretan parte hartu zuen, baina, guk hemen, zenbaitzuk aipatu-ko ditugu bakarrik, jakinik hainbat eta hainbat kanpoan geldituko zaizkigula...

- 1947an hasi zitzaigun Pedro txosten, artikulua eta liburukiak argitaratzen. Ordukoa dugu, gure ustez, lehena dena: *La formación y el desarrollo del verbo auxiliar vasco*.

Ordutik aurrera, beste zenbaitzuk dakartzagu hona:

- *Euskera* aldizkaria, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean kaleraturikoak:



1993ko martxoaren 26an, Nafarroako Gobernuan, Iruñean, *Dialectología del verbo auxiliar...* liburukien aurkezpenean. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Euskaltzaindiko idazkaria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernuburua; Jose Mari Rodríguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; eta Pedro de Yrizar

1958, III, 11-16.orr.: «Sobre la “B-” de las terceras personas del imperativo». 1975, XX, 407-452. orr.: «Aditza euskalki guzietan arloaren adieraztea». 1984, XXIX, 755-782. orr.:

Sobre los trabajos: I.M. Veshapidze.-Vzaimochereduiushchiesia glagol'nye osnovy soznacheniem “byt” v Baskskom yazyke; Yu. VI. Zytsar’.- O baskskom glagole “byt”.

Honetarako errusiera ikasi zuen Pedrok.

- Boletín de la *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (BRSVAP) aldizkarian: 1947,



1997ko urriaren 16an: Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Morfología del verbo auxiliar...* aurkezten. Ezkerretik eskuinera: Xabier Alberdi, *Euskararen tratamenduak: erabilera liburuaren* egilea; Ángeles Libano, *Toponimia Medieval del País Vasco* liburuaren egile behinena; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Pedro de Yrizar, eta Miren Azkarate, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreordea



1997ko urriaren 16an, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Ricardo Badiola Uriarte, Euskaltzaindiko argitalpen eragilea; eta Pedro de Yrizar

«Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco»; 1949, V, 273-275: «Sobre los nombres de hermano y hermana»; 1950, VI, 3-42; 255-292; 1951, VII, 123-176; 353-392, «Sobre el carácter pasivo del verbo transitivo o del verbo de acción, en el vascuence y en algunas lenguas del Norte de América»; 1951, VII, 397-406, «C.C. Uhlenbeck».

- Ondorengo urteetan euskararen atlas bu-
ruzko lan asko argitaratu zituen: 1955, XV,
375-386: «Sobre la exploración lingüística
del País Vasco»; 1956, XII, 33-38: «Sobre la
exploración lingüística del País Vasco»; 1956,
XII, 143-168: «Atlas lingüístico del País Vas-
co. Cuestionario de formas verbales»; 1957,
XIII, 17-22: «Algunas observaciones del pro-
fesor H. Gavel referentes al artículo “Sobre
la exploración lingüística del País Vasco”»;

- 1960, XVI, 3-14: «El Príncipe Luis Luciano
Bonaparte y su obra»; 1971, V, 115-118: «So-
bre las concordancias morfológicas de la
Lengua Vasca con las caucásicas y con otras
lenguas»; 1972, XXVIII, 125-168: «Observa-
ciones sobre la afijación en la Lengua Vasca»;
1973, XXIX, 3-78: «Los dialectos y varieda-
des de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-
demográfico». 1981, XXXVII, 303-306:
«Disquisiciones lingüísticas azcoitianas».

- ASJU (*Anuario del Seminario de Filología Vasca
Julio de Urquijo*), 1954. urtetik aurrera, gure
Pedrok, aldizkari honetan kaleratzen ditu
honako artikuluko: 1955, II, 137-148: «Sobre
la exploración lingüística del País Vasco»;
1973, VII, 3-36: «Los dialectos y variedades
de la Lengua Vasca. Variedades desaparecidas
y variedades amenazadas de rápida extinción.
Su evolución en el transcurso de un siglo»;
1978-79, XII-XIII, 3-14: «Sobre el pronombre
personal “i(r)ek” y las flexiones verbales co-
rrespondientes»; 1980, XIV, 27-86: «Sobre las

formas verbales vizcaínas con objeto indirecto de segunda persona»; 1981, XV, 3-74: «Sobre algunas formas verbales alocutivas no objetivas vascas y su comparación con las correspondientes objetivas. Distinto comportamiento de los dialectos»; 1988: *ASJU*, gehigarriak, XIV: «Sobre la extinción del subjuntivo y del potencial vizcaínos» eta *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Pars altera, 1093-1104. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1988.



1999ko martxoaren 25ean, Pedro de Yrizar, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Morfología del verbo auxiliar...* liburukia aurkeztzen

Elkarlanean

Kolaboratzaile modura ere idazle oparoa izan dugu Pedro: euskara eta gaztelaniatik aparte landu zituen beste zenbait hizkuntza ere. Alemanetik gaztelaniara itzulia:

- R. Bpck-en *Praxis der magnetischen*, Messungen, Berlin Brorntreager, 1942/*Prácticas de las mediciones magnéticas*.
- *Estudio sobre equipos magnéticos para determinación de valores absolutos*. Pedro de Yrizar, Alfonso Méndez de Vigo, Vicente Peña y José María Munuera.
- *Diccionario ruso-español de la ciencia y de la técnica*. C. Alvarez Fernández, M. Espinosa, M.V. Fernández Fernández, P. García, E. y J.M. Gómez Echegoyen/Etxegoien, D. González Monasterio, Pedro de Yrizar, J. Laín Entralgo, C. Laín González, A. Pérez Masía y F. Saleta.
- Beste zenbait aldizkaritako partaide ere izan genuen Pedro, haren bizitza luzean zehar: *Gure Herria*: «Los dialectos y variedades de la lengua vasca», 1976, XLVI, 63; *Deba*, Udaberria: «Observaciones sobre las formas verbales de Deva», 1986, 27; *Ele*: «Bonaparteren sailkapenari buruz», 1987, Bizkaiko Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK), 3. zenbakiduna, 97-104; *Hispanica posnaniensia*: (Nazioarteko aldizkaria: Uniwersytet Adama Mickiewicza): «Sobre la evolución de la Lengua Vasca», 1988, lehen zenbakia, 185-198. Poznań/Polonia.
- Txosten berezia: «Los dialectos de la Lengua Vasca». 1989. urtean *Hispania posnaniensia symposiumean* aurkezturikoa.



1999ko martxoaren 25ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.
Ezkerretik eskuinera: Pedro de Yrizar; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Miren Azkarate, euskaltzain osoa;
eta Juan Ignazio Pérez, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordea

Beste zenbait argitalpen

Pedro de Yrizar jaunak Euskal Herriko hainbat omenaldi-liburutan parte hartu zuen eta honen lekukotasun gisara, besteak beste, ondorengoak aipa genitzake, alegia:

1. *Homenaje a D. Julio de Urquijo*: «Los dialectos y variedades del vascuence», 1949, I, 143-168. orr.
2. *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki-bilduma*, III, Kardaberaz Bazkuna, 345-354. orr.: «La alocución en el verbo vasco. Su expresión en los distintos dialectos y variedades».

3. *Homenaje a Don Odón de Apraiz*: «Sobre las formas verbales alocutivas del pretérito desprovistas de -n final», Consejo de Cultura de Álava, 1981, 407-412. orr.

4. *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Iker bilduma, II. liburukia: «De(b)e- du(t)e, dai, debie aditz-jokoak gipuzkeraz. Bizkaieraren eragintza», Euskaltzaindia R.A.L.V., 1983, 683-688. orr.

5. *Aingeru Yrigaray-ri omenaldia*: «Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako-, -eko-, en el alto navarro meridional», Eusko Ikaskuntza, 1985, 259-290. orr.

6. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco*, IX. liburukia, 1959, 217-237. orr.: «Los dialectos y variedades del vascuence»; eta XXII. liburukia: «Laburdi. Lengua. El dialecto labortano», 182-184. orr.

7. *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*. Gipuzkoako Kutxa Probintziala/Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Lehen aldiz 1973. urtean «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico» kaleratu zuen eta gero, 1981. urtean, gehitu eta orrazturik, liburuki bi: 334 eta 428 orrialdedunak.



1999ko martxoaren 25ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Morfología del verbo auxiliar...* liburukiaren aurkezpenean: Ricardo Badiola Uriarte, Euskaltzaindiko argitalpen eragilea; Pedro de Yrizar eta kazetari bat



1999ko martxoaren 25ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, Pedro de Yrizarrek paraturiko liburukiaren aurkezpenean. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Pedro de Yrizar; Maria Elena de Yrizar Velasco, Pedoren alaba; eta Henrike Knörr, euskaltzainburordea



1999ko martxoaren 25ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Morfología del verbo auxiliar...* aurkeztean.
Ezkerretik eskuinera: Pedro de Yrizar, Jean Haritschelhar eta Miren Azkarate



2000ko azaroaren 30ean Azkoitiko herriak Pedro de Yrizarri omenaldia eskaini zionean: Pedro Yrizar, Azkoitiko Udaletxean, ohorezko liburuan sinatzean. Gure Pedro, Nerea Zubizarreta, herriko alkate andrearekin. Egun horretan, Udaleko zinegotzi guztiek, aho batez onarturik, omenaldi urrikaltsua jaso zuen



2000ko azaroaren 30ean Azkoitiko herriak Pedro Yrizarri omenaldia. Ezkerretik eskuinera: Pedro Yrizar, Jose Arakistain eta Ricardo Badiola Uriarte



2002ko uztailaren 10ean Madrilgo Biblioteca Nazionalean: Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak Pedrori egindako omenaldi-liburukiaren aurkezpenean: *Pedro de Yrizar. Memorias de un vascólogo*. Ezkerretik hasita: J. M.ª Urkia, Pedro de Yrizar eta Henrike Knörr, euskaltzain osoa

Euskaltzain urgazle eta ohorezkoa

Euskaltzain urgazle (1947) eta ohorezko (1987) izendatzetik aparte, Euskaltzaindiarekin Pedrok izandako harremanak nolakoak izan ziren, leku-ko ditugu ondorengo zenbait argitalpen:

1. *Euskera* Erakundearen agerkari ofizialetik aparte euskal aditz laguntzaileari buruzkoak ditugu. Yrizarrek, laguntzaile-eragile gisara, Koldo Artola, euskaltzain ohorezkoa izan du eta beronen laguntzarekin kaleratu dizkigu jarraiko liburukiok, hots:

2. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (Estudio dialectológico)*. Bi liburuki, 1991n.

3. *Morfología del verbo auxiliar vizcaíno (Estudio dialectológico)*. Bi liburuki, 1992an.

Adibide modura hona hemen zer dioen Pedrok gurekin izandako elkarrizketan:

Hizkuntza gauza bizi bat da, eta horrek ematen dio handitasuna. Gertatu izan zaigu joan etxe batera eta aittak modu batera hitz egin, amak beste batera, eta seme-alabek beste batera. Eta badira euskalkien artean muga egiten duten herri batzuk, oso interesgarriak, adibidez, Elgoibar, Mutriku eta Deba. Itziar ez, Itziarren gipuzkera egiten da garbi.

4. Urte berean *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional (Estudio dialectológico)*. Bi liburuki.

5. *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro meridional (Estudio dialectológico)*. Liburuki bat.

6. *Morfología del verbo auxiliar roncalés (Estudio dialectológico)*. Liburuki bat.

Ohar gisara, hemendik aurrera ordenadore-arekin lan egiten hasi zitzaigun:

...asko kostatu zitzaidan teknika hori ikas-tea eta oraindik ere izaten dittut susto batzuk, baña pozik nago, jakiña. Gauza haundia da ordenadorea.

7. *Morfología del verbo auxiliar labortano (Estudio dialectológico)*. Liburuki bat, 1997an.

8. *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro occidental (Estudio dialectológico)*. Liburuki bat, 1999an.

9. *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental (Estudio dialectológico)*. Hiru liburuki, 1999an.

10. *Morfología del verbo auxiliar suletino (Estudio dialectológico)*. Liburuki bat, 2002an.

Aipaturikoen laburpena edo *Index/Índices* (Pedrok deitzen zuen *Compendio*), prest-prest utzi zuen, baina kaleratu gabe gelditu zitzaigun inprimategian sartzeko asmoarekin. Liburuki honetan, Koldo Artolak adierazi digunez,

[...] azaltzen dira orain arteko liburukietako partaideen zertzelada eta argibide ugari. Hemen, besteak beste, berri-emaile onak



2002ko uztailaren 10ean Madrileko Biblioteca Nazionalean Pedrori egindako omenaldian. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Javier Bello-Portu, konpositore eta orkestraren zuzendaria, eta Pedro de Yrizar

eta fidagarriak, bakarrik edo tarteko hainbat laguntzailerekin, bai Euskal Herri mailan eta baita aparte ere lortu zituenekin azaltzen dira [...] inkesta eta beste hainbat ikerketazertzelada [...] aurrera ateratzeko.

Liburukian azaltzen direnen artean, bat bederen, aipatzekoa dugu bereziki, Koldo Artola, egun euskaltzain ohorezkoa dugun donostiarra, langile nekaezina, fina, dialektologian aditua eta Pedoren lagun leiala. Beraz, donostiar ho-

nen laguntza barik ezin zitezkeen aurrera eramane egilearen asmo luze eta ikerketa sakonak.

Halaber, aipatu behar dugu, 2002. urtean, Henrike Knörr euskaltzain oso, egun *Iker* sailburua duguna eta Euskal Herriko Unibertsitateko Katedradunak eta Pedoren seme gazteenak, Iñigok, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin batera, Madrilgo ordezkaritzaaren ardura-pean, argitaratu zuten *Memorias de un vascológo. Mis relaciones con lingüistas y vascolólogos*.

Liburu honetaz, hona hemen Henrike Knörr jaunak dioskuna:

Benetan nekez aurki daiteke liburu hau baino hoberik, XX. mendearen bigarren erdiaz argibidea jasotzeko, euskal kulturaren gainean oro har, eta bereziki euskalariaren gainean, baita euskal gizarteari buruz ere bai. Gorago ere jotzen du Yrizarrek orrialde hauetan. Ezen, adibidez, Urquijok kontatu zizkion gauza batzuk ageri dira, eta maiz umorea fal-

ta ez delarik. Demagun, Karlos VII.aren gaiztakeria bere morroi euskaldunarekiko. Honak ezin zuen *r* letra ahoskatu, eta orduan errege-gaia saiatzen zen hitz hauek agertzen: *Sácame los pantalones del otro día. ¿Cuáles? Los mejodes?* (Euskera. 2004. I, 587. orr.).

Eta, azkenik TVE 2 delakoan «Pedro de Yrizar, memoria de la lengua vasca» elkarrizketa grabatua utzi zigun, Chopin musikariaren atal batzuk jotzen zituen bitartean.



2000. urteko azaroaren 30ean, Azkoitiko Udaletxean, Azkoitiko herriak Pedro jaunari eskainitako omenaldian, ohorezko aurrekua

Hau ikerketatxoau burutzeko laguntza eskaini didatenei eskerrak luzatu-eman gura dizkiet: lehen eta behin Pedrori berari eskainitako hainbat eta hainbat elkarrizketa gozo, aberats eta jakingarriengatik... eta gero, Pedroren seme-alabei:

- Pedro, Maria Elena eta Iñigori bai haren bizitzako gorabeheretan partaide izan, jasan eta harekiko argazki eta abarretan laguntzeagatik;
- Henrike Knörr, euskaltzain oso eta Iker sailburuari;
- Koldo Artola, Pedroren ikerketa-laguntzaile eta euskaltzain ohorezkoari, batez ere.
- Eskerrak, bestalde, Pedrorekin harremanak izan eta harekin ikertu, landu eta gure Herriko kultura-ren aldeko lan egin duten guzti-guztiei.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2471-I 84-457-2472-X
L.G.:	BI - 2746-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística